



Laneko Osasunaren Informazio Buletina

92 alea / 2023ko martxo

Berritasunak



Emakumearen Nazioarteko Eguna. Martxoaren 8a. Martxoaren 8an, **Emakumearen Nazioarteko Eguna** dela eta, NOPLOIk bat egiten du Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren **Zuregatik. Guztiengatik** kanpainarekin eta lan-segurtasunaren eta prebentzioaren eremuetan genero-ikuspegia xertatzeko lanean jarraitzeko beharra gogorazi du.

Ildo horretan, nabarmentzekoa da **Berdintasun Plana**, 2022ko martxotik derrigorrezkoa 50 pertsonatik gorako plantilla duten enpresentzat, helburu hori betetzeko tresna izan daitekeela. Hori egiteko, legediak lan-osasuna genero-ikuspegitik xertatzea aurreikusten du. Ikuspegi horretan sartzen dira, besteak beste, ugalketa-osasuna, haurdunaldiko eta edoskitzaroko egoerak eta, oro har, emakumeen osasuna modu eraginkorrean babestea, bai eta genero-rol eta -estereotipoen lotutako lan-arrisku espezifikoaren prebentzioa ere, hala nola lanaldi bikoitza, sexuagatiko diskriminazioa edo sexu-jazarpena.

2022an 104 plan berri inskribatu ziren Nafarroan, 83 enpresa behartuenak eta 21 enpresa ez behartuenak. Zifra hori ez dator bat 2020ko 28ekin. Beraz, aurrerapen bat da, ez soilik berdintasunean, baita emakumeen laneko segurtasunean eta osasunean ere



INTIArekin lankidetzan lehen sektoreari zuzendutako laneko segurtasunari buruzko prestakuntza-ekintzak emateko. NOPLOIk eta INTIA sozietate publikoak prebentzioaren arloko prestakuntza-ekintza bateratuak sustatuko dituzte nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreetako profesionalentzat. Testuinguru horretan, NOPLOIk lagundu egingo du gazteak nekazaritza-jardueran sartzeko helburua duten ikastaroetan laneko arriskuen prebentzioari buruzko modulua ematen. Erakunde horrek urtero planifikatzen eta ematen ditu ikastaro horiek.

Nabarmendua

2022ko lan-istripuen behin-behineko estatistika-txostena argitaratu da. Lan eta Ekonomia Sozial Ministerioak 2022ko lan-istripuen aurrerapena argitaratu du. Behin-behineko datu horien arabera, estatu mailan 679 pertsona hil ziren iaz. Nafarroari dagokionez, 2022an baja eragin zuten 10.849 lan-istripu erregistratu ziren; horietatik 11 hildakoak izan ziren eta 76 larriak.



 [2022ko](#)



Prebentzioko Ordezkarien Prestakuntza Planaren programazioa 2023ko lehen sei hilekorako. 2022ko lehen sei hilekoan, guztira bost prestakuntza-ekintza emango dira NOPLOIren Laneko Osasun Zerbitzuak koordinatzen duen **Prebentzioko Ordezkarientzako Prestakuntza Planaren** esparruan. Horietatik hiru ELA sindikatuak sustatu ditu eta beste bi UGTk. Ospakizunaren lekuari dagokionez, hiru Iruñean emango dira eta bi Tuteran.

Berriak

- [Las bajas por enfermedad común alcanzan máximos históricos en 2022 en Navarra](#)
Diario de Noticias
 - [Cuatro de cada diez muertes en jornada laboral durante 2022 se produjeron por infartos y derrames cerebrales](#)
La Vanguardia
 - [Los accidentes mortales en el sector agrario repuntan un 82,7% en 2022](#)
EIEconomista.es
 - [Un juez considera accidente laboral el sufrido en domingo al volver de fin de semana](#)
Cinco Días
 - [Inspección de Trabajo propone subir un 50 % una pensión de viudedad por amianto en Navarra](#)
Diario de Noticias
-

Agenda



Ikastaroa
VIBRACIONES. EVALUACIÓN DEL RIESGO POR VIBRACIONES MECÁNICAS. ESTIMACIÓN Y MEDICIÓN.
CNVM Bizkaia – Martxoak 22 eta 23

- Programa
- Izen-ematea



Batzarra
19 CONGRESO DE LA SEAUS. HUMANIZANDO LA ATENCIÓN
Nafarroako Medikuen Elkargo Ofiziala– Martxoak 30 eta 31

- Programa
- Izen-ematea



Web-mintegia
EQUIPOS DE PROTECCIÓN INDIVIDUAL CONTRA CAIDAS EN ALTURA
Birtuala – Apirilak 18

- Programa
- Izen-ematea



Web-mintegia
AMIANTO: IMPORTANCIA DEL VOLUMEN DE MUESTREO EN LAS DETERMINACIONES DE FLORES DE AMIANTO EN EL AIRE
Birtuala– Apirilak 21

- Programa
- Izen-ematea

Argitalpen digitalak



Zarataren esposiziopean dauden langileen osasuna berariatzaintzeko protokoloa
OSALAN



Revista APRL. Volumen 26 (Enero- marzo 2023)
APRL



Cartel “Desconexión digital”
INSST



ERGA - Legislación
Número 1 -2023



Folleto. Trabajando en onda. Siempre atento.
INSST



Seguridad y Salud en el Trabajo. Nº13
INSST

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (NOPLOI) ez du bere gain hartzen argitaraturiko artikuluen eta albisteen edukirik; izan ere, bere horretan hartu dira kasuan kasuan aipaturiko webgunetik, eta ez zaie aldaketarik egin ezta deus erantsi ere. Edozein kontsulta edo iradokizun egin nahi baduzu, edo ez baduzu bidaltzaile honen informazio gehiago jaso nahi, NOPLOIra jo dezakezu, helbide elektronikoa honetara ispln.ufi@navarra.es



ARGITARATZAILEA:

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua (Landabengo industrialdea, E eta F kaleak. 31012 Iruña)
☎ 848 423 771
Edizio-formatua: Fitxategi elektronikoa.
2023ko martxo